



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Ainhoa Mindegua Santesteban
Txomin Hualde Elizalde
Ezekiel Loiarde Santesteban
Pedro Hilario Santesteban Loyarte

2025eko otsailaren 6an, 19:00tan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Domínguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Izaskun Mielgo Rey. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AKTAK ONARTZEA.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dien deialdiarekin batera banatu ziren aurreko Bilkuretako aktei. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez erabaki du**:

1.- Aurreko bilkurako aktak onartzea, 2024ko azaroaren 28, abenduaren 18 eta 2025eko urtarrilaren 9koa.

2. BIDEAREN DESAFEKTAZIOA ETA TRUKEA, 2. POLIGONOKO 120 ETA 121 LURZATIAK. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Zubietan, Lucio Juanicorena Gorosterrazu jaunak aurkeztu zuen Domintxeneko borda ondoko bidea desafektatzeko eta ondoren trukea egiteko eskaera. Horrekin batera aurkeztu zuen, Michel Echenique Echandi arkitekтуak egindako memoria baloratua eta Jabetza erregistroko Nota arruntak, kargarik gabeko bere lurzatiak direla egiaztatzeko.

2024ko azaroaren 28an osoko bilkuran onartu zen bideraren desafektazioa eta trukea 2. poligonoko 120 eta 121 lurzatietan, hasierako onespena ematea, NAO-n argitaratu zen 262. Aldizkarian, 2024ko abenduaren 27an. Hilabeteko epea igaro da eta alegaziorik ez denez egon, erabakia behin betikoa bilakatu da.

Chocarro eta Urmeneta arkitekto aholkularien txosten teknikoak ikusirik, 2024ko urriaren 22koa, eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginako 110. artikuluan xedatukoa betez (1/2017 LFD, uztailaren 26koa),

Azalpenen ondoren Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez** hurrengoa erabaki du:

1.- Bideraren desafektazioa eta trukea Lur ondasun Departamendura bidaltzea, txostena eskatuz.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

3. XEHETASUN AZTERLANA 4. POLIGONOKO 918. LURZATIA. HASIERAKO ONESPENA.

2024ko azaroaren 28an osoko bilkuran onartu zen xehetasun azterlana 4.poligonoko 918. Lurzatian, hasierako onespena, NAO n argitaratu zen 257. Aldizkarian, 2024ko abenduaren 19an. Hilabeteko epea igaro da eta alegaziorik ez denez egon, erabakia behin betikoa bilakatu da.

Chocarro eta Urmeneta arkitekto aholkularien txosten teknikoak ikusirik, 2024ko azaroaren 25koa, behin betiko onespena bakarrik eman ahal izango du, katastroa aldatuta dagoenean, xehetasun azterlanaren zehaztapenak erregistroan baliozkoak izateko.

Azalpenen ondoren Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez** hurrengo erabaki du:

1.- Xehetasun azterlanaren katastrora bidaltze behar diren ondorioan izateko.

4. TOKIKO INBERTSIOEN PLANEN ONARTUTAKO GOROSPIL BIDEA PROIEKTUAREN OBRAREN PLIEGOAK ONARTU.

Ikusik, 8/2022 Foru legea, martxoaren 22koa, 2023-2025 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duena, Zubietako udalak « Gorospil bidea hormigonatzeko » memoria teknikoa aurkeztu zuen.

Ikusirik, 27E/2023 ebazpena, apirilaren 29koa, behin-behineko zerrandan onartua agertzen zela, Martin Mindeguia Ochandorena proiektua idaztea eskatu zitzaion.

Ikusirik, 2023/55 alkate ebazpenaren bidez, (2023ko azaroaren 21 osoko bilkuran berretzi zena) « Gorospil bidea hormigonatzeko » proiektua onartu zen, behin betiko zerrendan sartuz.

Aurrekariak kontuan hartuta eta kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legea eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 224. eta ondoko artikuluetan ezarritakoaren arabera, Udalbatzak honako hau aho batez erabaki da:

1. Onestea « Gorospil bidea hormigonatzeko » obrak kontratatze espediente, eta adjudikazio prozedurari hasiera ematea, kontratua prozedura simplifikatu bidez esleitzeko. Hurrengo bost enpresei gonbidapena bidaliz: Javier Altzugari SLU, Excavaciones Mikel Ubiria SLU, Sasoi Eraikuntzak S.L., Fermin Santesteban Elizalde eta IM Arrixko Igeltseritza SL.
2. .Kontratazioaren plegu arautzailea onestea.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

3. Gasturako baimena ematea. Aldez aurretik izapidetzen den gastua eta, hala badagokio, esleipena edo suntsiarazpena, dagokion ekitaldian dagozkion betebeharrak finantzatzeko kreditu egoki eta nahikoa egotearen baldintza etengarriaren mende egonen dira.

4. Lizitazio argitaratzea Nafarroako Plataforma Elektronikoaren Atarian (PLENA)

5. ABELTZAINZA AZPIEGITURAK HOBETZEKO DIRULAGUNTZA.

Zubietako Udalak, Martin Mindeguia Ochandorena basogintzako ingeniari teknikoari abelazkuntza azpiegitura lokaleko hobekuntzarako balioetsitako memoria teknikoa egitea eskatu zion, abeltzaintzako toki azpiegiturak sortu eta hobetzeko 44E/2024 martxoaren 21eko ebazpenean agertu zen deialdian parte hartzeko.

239E/2024, urriaren 23ko ebazpenean dirulaguntzaren deialdia ebatzi du aipatutako proiektua onartuz.

Aurrekoa ikusirik, alkateak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak honako hau aho batez erabaki du:

1. Abeltzaintzako azpiegiturak hobetzeko lanaren proiektua onartu.
2. Abeltzaintzako azpiegiturak hobetzeko lanaren proiektua, bost enpresei bidali proposamen ekonomikoa egiteko eskatuz; Javier Altugari SLU, Excavaciones Mikel Ubiria SLU, Sasoi Eraikuntzak S.L., Fermin Santesteban Elizalde eta IM Arrixko Igeltseritza SL.

6. PROKURADOREAK IZENDATZEA.

Ikusirik Lahssaine Ouasou jaunak jarritako Beraztertzeako errekursoaren aurrekariak eta 2025eko urtarrilaren 23an jakinarazi zituzten 02/2025 alkate ebazpena, 2025eko otsailaren 1ko azkeneko eta luzaezina zen luzapena emanez,

Udalburuak gaia aztertu ondoren, bozkatzera deitu eta Udalbatzak **aho batez hurrengoa erabaki du:**

- 1.- Aurreko osoko bilkura hartutako erabakiak eta 2/2025 alkate ebazpena berresten ditu.
- 2.- Ekintza judizialen hasiera berresten du.
- 3.- Auzietarako ahalmen orokorra egitea erabaki du, hurrengo prokuradoreak izendatuz: Arantza Perez Ruiz eta Eduardo de Pablo Murillo Nafarroan eta Madrilen Ana Lázaro Gogorza.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

4. –Notario aurrean, auzietarako botere orokorra sinatzekoa ahalmena alkateari ematea.

5.- Akordioa interesatuari eta udalaren abokatuari jakinaraztea.

7. HERRI LURREN APROBETXAMENDUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Udalburuak gaia azaldu, NAO 222 zenbakian, 2021eko irailaren 21an, herri lurren aprobetxamendua arautzen duen ordenantzaren behin betiko onespena argitaratu zen eta zuzenketa batzuk egin behar direla ohartarazi du. “Zubieta” jarri ordez “Goizueta” agertzen da eta “35. Artikulua” aipatzen denean “17.artikulua” izan behar da.

Proposatzen diren zuzenketak aztertuta Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- Ordenantzaren zuzenketak hasiera batez onestea.

2.- Zuzenketak erakustaldi publikoan jartzea 30 egunez NAO-n argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

8. HERRITARREN LANA EDO AUZOLANA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Udalburuak gaia azaldu, NAO 242 zenbakian, 2015eko abenduaren 4an, herritarren lana edo auzolana arautzen duen ordenantzaren behin betiko onespena argitaratu zen eta aldaketa bat egin behar dela ohartarazi du. Ordenantzaren 6.4 artikuluan “2016.urterako 50 euro izanen da auzolan bakoitzeko” jarri ordez “Zubietako udalak urtero onartzen dituen tasetan zehaztuko da, 2025.urtean 70 euro izanen da” izan behar da.

Proposatzen den aldaketa aztertuta Udalburuak bozkatzera deitu eta Udalbatzak aho batez hurrengoa erabaki du:

1.- Ordenantzaren aldaketa hasiera batez onestea.

2.- Aldaketa erakustaldi publikoan jartzea 30 egunez NAO-n argitaratzen den egunetik kontatzen hasita

9. NEXT GENERATION UE FUNTSAK KUDEATZEKO IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA ONARTZEA.

Kontseilu Europarrak 2020ko ekainaren 21ean onartu zuen Next Generation EU programa sortzea, koronabirusak eragindako krisiari aurre egiteko ekonomia suspertzeko tresna. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren bidez ezarria, Suspertze Funts horren muina da.

Espainiako Gobernuak Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioak HFP/1030/2021 Agindua onartu zuen, irailaren 29koa, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren kudeaketa-sistema eratzen duena.

Agindu horren 6. artikulua arabera, «STEPeke neurrien betearazpenean parte hartzen duen erakunde erabakitzaile edo betearazle orok iruzurraren aurkako neurrien plan bat izan beharko du, dagokion jardun-eremuan aplikatzekoak diren arauen arabera erabili direla bermatzeko eta deklaratzeko, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, hautemateari eta zuzentzeari dagokionez.

Azaldutakoan oinarrituta, eta idazkariak idatzitako Iruzurraren aurkako Neurrien Plana ikusita, honako hau

Udalbatzak **aho batez hurrengo erabaki du:**

- 1.- Next Generation EB funtsak kudeatzeko Zubietako Udalaren Iruzurraren aurkako Neurrien Plana onartzea.
- 2.- Iruzurraren aurka borrokatzeko adierazpen instituzionala onartzea, Planaren I. eranskineko estuarekin.
- 3.- Onartutako Plana Zubietako Udalaren Iragarki Atarian argitaratzea.

*******MARTXEL ELIZALDE SARTZEN DA*******

10. ESKAERAK

10.1 Patxi Mindegia Mutuberria jaunak Forestal Zubieta, S.L.enpresaren izenean, Iziarra, Errekaldeko bordako eta Arrataburuko egur lotea esleitu zitzaion 2024ko irailaren 3an.

Ikusirik denbora txara dagoela, ezinezkoa egin zaio aprobetxamendua atera eta 2025eko martxoaren erditik aurrera ateratzeko eskaera egiten du, lotea eta fidantza ere orduan ordaintzea.

Udalburuak gaia aztertu ondoren, bozkatzera deitu eta Udalbatzak **aho batez hurrengo erabaki du:**

- 1.- Patxi Mindegia Mutuberria jaunak, Forestal Zubieta, S.L. enpresaren izenean aurkeztutako eskaera onartzea, hurrengo baldintzei lotuta:



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

- Luzapena onartzen da. Aprobetxamendua ateratzeko epea iraila bukaerarte da, epea luzaezina da.
- Esleipenean aipatutako beste baldintzak bete beharko dira.
- Mendiko ordenantzan jartzen duena bete beharko du.

2.- Akordioa intersatuari jakinaraztea.

11.- ALKATE EBAZPENAK.

Alkateak irakurri ditu emandako ebazpenak (76 eta 77/2024- 1/2025tik 8/2025tara ebazpenak).

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

12.- HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

Herriko gaiei buruzko informazioa ematen da: Asier Sistiaga Nieto jaunak erantzukizunpeko adierazpena 2 poligonoko 389 lurzatian zuhaitzak botatzeko--- Marcos Juanikorena jaunak erantzukizunpeko adierazpena 2 poligonoko 226 lurzatian zuhaitzak botatzeko---Landa Garapenako Ingurumeneko departamenduko ebazpena Pedro Jesus Santesteban Santesteban oihan aprobetxamendua baimenduz 1 poligonoko 6,13, 14, 429 eta 453 lurzatietan--- Landa Garapenako Ingurumeneko departamenduko ebazpena M Carmen Elizalde Elizalde oihan aprobetxamendua baimenduz 4 poligonoko 927 lurzatian-----Pedro Tellechea Erasun oihan aprobetxamenduko baimen eskaera 3 poligonoko 131 lurzatian---657E/2024, abenduaren 17koa Kulturaren Zuzendari Nagusiarena museoko funtzionamenduarko dirulaguntza emanez 11.578,03 eurokoa----

Ez dago galde eskerik.

Eta bertzerik ezean, 20:15ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.